

## ZITALKERIA.

(ON KANDIDO OLASKOAGA-KO NERE ADISKIDE MAITEARI DONEKITUA.)

Mendiskachoren egal batean  
Aritz bat zan arkitutzen,  
Iru auzoak berdiñ zutena  
Biotzetik maitatutzen.

Gerria lodi, adarrak zabal,  
Orriak eze eta usu,  
Arri begira egon izandu  
Ziraden zenbat jakintsu.

Neguan sortzen ziran uramill  
Eta ekaitz aizetsuak,  
Etziran aski garaituzeko  
Aren sustar indartsuak.

*Pi pi* kantari kabugabeko  
Amodiokin goizetan,  
Ikusten ziran chori politik  
Sardaskachoen gañetan.

Pozez beterik udaberrian  
Etorri oi ziran ara,  
Euren guraso zarrak moldatu  
Zituzten kabichotara.

An ziran jaio, an ziran azi,  
An udazken arte bizi;  
An lore usai-dunen artean  
Egaatu ziran lenbizi.

An bezelako libertaderik  
Etzuten iñon arkitu,  
Zeren etzien gaitzik egiten  
Iñork, baizik pallakatu.

Amar eunki eta giago  
Zituzten aen kabiak,  
Eta betiro, zapuztu gabe,  
Irauten zuten guziak.

Pakean eta zorionean,  
Beñere etziran aspertzen,  
Zerutarrezko kantachoakin  
Jaunari esker ematen.

Patu gaiztoak ÷milla aingerua!  
Ordea nai izan zuan,  
Momorrocho bat zulaturikan  
Lurra bere inguruan;

Izandu arren indar gabea,  
Dollorra eta zitala,  
Isill-işillik sustar sendoen  
Artean sartu zedilla.

Lajatu zion aritz prestuak  
Azala orchikatutzen;<sup>1</sup>  
Bai eta ere denborarekin  
Bere barrenen sartutzen.

(1) Roer.

Bada, etzuen beñere uste  
Ziola egingo gaitzik,  
Egiten zion mesede ura  
Gogoan beti idukirik.

Baña ¡ai! laster antz eman zion  
Berandu zala oroitu;  
Zeren momorro galgarri ura  
Etzan lanetik gelditu.

Igo zanean oñetatikan  
Biotzaren erdiraño,  
Íšuri zion bere pozoia,  
Suminki,<sup>1</sup> munetaraño.

Aritz gaišoak ezaguturik  
Guchitzen bere indarrak,  
Eta, aitutzen lenago senti  
Zituan ezetasunak;

Nai zuan izan kanpora bota  
Momorroa; baña alperrik;  
Anbesteraño arkitutzen zan  
Bere barrena sarturik.

Orduan zion esan ajika:  
—¡Salkindaria! mintza ari:

Nik emana dek ostatu ori,  
Eta gilltzen ni aiz ari?...

Bere burua gor egiñikan,  
Batere kupida gabe,  
Momorrochoa etzan gelditu  
Bizigaiak kendu arte.

Andikan iru illabetera,  
Zana len aĩn indartsua,  
Arkitutzen zan lorerik eta  
Orri gabe zimeldua.

Eror zitzaizkan adar sendoak,  
Bai eta ere azala,  
Eta, gelditu beti betiko  
Igartua eta illa.

Irakorlea: onek ekarri  
Erazten digu burura,  
Chikitandikan ikasitako  
Antziñako esaera.

Au da: *atzerri edo kanpotik*  
*Etorriko da gugana,*  
*Gure echetikan, ustekabero,*  
*Botatuko gaituena.*

OTAEGI-KO KLAUDIO.



(1) Sañudo.